

FONEMEKIN SALTO-SALTOKA

KLKKA



Fonemekin salto-saltokaren egileak:

Ima Azurmendi Berasategi
Ana Ikazuriaga Muniategi
Belen Markuerkiaga Arriaga
Matxalen Mejias Bikandi
Maite Zorrilla Larrea

Marrazkilaria: Iñaki Arana Albeniz

Klika "Fonemekin salto-saltoka"ren egileak:

Aitziber Barrenetxea Goiria
Natividad Martin Francisco
Matxalen Mejias Bikandi

KLIKA "FONEMEKIN SALTO-SALTOKA"

AURKIBIDEA

Lanaren sorrera.....	1
Lanaren zergatia.....	3
Materialaren deskribapena eta erabilera.....	4
Irakaslea, dinamizatzailerak.....	5
ERANSKINAK.....	6
• Dadoak.....	6
• Soinuen aurkibideak.....	7
• Behiaren jolasa: B letraren soinua.....	8
• Idiaren jolasa: D letraren soinua.....	9
• Fokaren jolasa: F letraren soinua.....	10
• Igelaren jolasa: G letraren soinua.....	11
• Jirafaren jolasa: J letraren soinuak.....	12
• Katuaren jolasa: K letraren soinua.....	13
• Balearen jolasa: L letraren soinua.....	14
• Oilarraren jolasa: LL eta IL letra-taldearen soinua.....	15
• Tximinoaren jolasa: M letraren soinua.....	16
• Zezenaren jolasa: N letraren soinua.....	17
• Sorginaren jolasa: Ñ letraren eta IN letra-taldearen soinua.....	18
• Hipopotamoaren jolasa: P letraren soinua.....	19
• Lorotxoaren jolasa: R letraren soinua.....	20
• Txerriaren jolasa: RR letra-taldearen soinua.....	21
• Saguaren jolasa: S letraren soinua.....	22
• Elefantearen jolasa: T letraren soinua.....	23
• Otsoaren jolasa: TS letra-taldearen soinua.....	24
• Tximeletaren jolasa: TX letra-taldearen soinua.....	25
• Panda hartzaren jolasa: TZ letra-taldearen soinua.....	26
• Zikoinaren jolasa: Z letraren soinua.....	27
• Diploren jolasa: L letraren soinua silaba trabatuetan.....	28
• Tigrearen jolasa: R letraren soinua silaba trabatuetan.....	29
Bibliografia.....	30

Lanaren sorrera

Orain dela hogeitatu urte eta EIMA programaren bitartez, logopeda batzuek (Ima Azurmendi Berasategi, Ana Ikazuriaga Muniategi, Belen Markuerkiaga Arriaga, Matxalen Mejias Bikandi eta Maite Zorrilla Larrea) *Fonemekin salto-saltoka* liburuxka sortu genuen, kontzientzia fonologikoa eta ahoskera lantzeko asmoarekin. Garai hartan, gure helburua euskarazko materialaren gabeziari aurre egitea izan zen. Gaur egun, Hezkuntza Saileko Irakurgunean eskuragai dago, eta, dakigunez, hainbat eskolatan erabiltzen da.

Helbide honetan ikus daiteke materiala PDFn:

<https://irakurgune.euskadi.eus/documents/30019/0/Salto+saltoka/58f8c733-1a9b-9839-8c53-6d7d2adc51a3>



KLIKA "FONEMEKIN SALTO-SALTOKA"

Azken urteotan hezkuntza-sisteman egon diren aldaketek testuinguru berria sortu dute. Euskal Autonomia Erkidegoan, Heziberri 2020 planak, egoera berri horri erantzuteko, ildo estrategikoak proposatzen ditu: kompetentzietan oinarritutako curriculum eta aniztasunaren trataeraren ikuspegi berria, besteak beste.

Errealitate berri honetan, informazio- eta komunikazio-teknologiak (IKT) jakintza sustatzeko tresna indartsuak dira. Beraz, oinarritzko hezkuntzan, ikasleek kompetentzia digitala garatzea garrantzitsua da. Horrez gain, teknologia berriak bitarteko ezin hobekak dira ikasleek edukiak ikas ditzaten eta irakasleek hobeto irakats dezaten.

Gaur egun, geletan dagoen aniztasunari erantzuna emateko, hezkuntza inklusiboa da giltza. Funtsean, ikasle guztiek beren berezitasun guztiekin ahalik eta garapen pertsonal handiena lortzea da helburua, hau da, denentzako eskola izatea. Izan ere, eskola inklusiboak ikasle guzti-guztiei eskaini behar dizkie hezkuntzan aurrera egiteko aukera berberak.

Hezkuntza inklusiboa, bidezkoa eta kalitatezkoa izateko baldintzak sortzeko, etengabeko egokitzapenak egin behar ditugu hezkuntza-jardunbideetan. Ezinbestekoa zaigu irakasleoi lankidetzan aritzea eta ikasleen arteko lankidetzaz erraztuko duten estrategia inklusiboak eta metodologia aktiboak abiaraztea eta, azken finean, baliabideak egokitzea.

Horregatik guztiagatik beharrezkoa iruditu zaigu aipatutako materiala egokitzea eta moldatzea egoera berriari erantzuna emateko. Beraz, klikatu, eta aurrera!

* Eskerrak eman nahi dizkiegu gure inguruko ahots goxo guztiei, eskuzabal eta gogotsu audioetan parte hartzeagatik, haien laguntzarik gabe ezinezkoa izango zitzagun lan hau burutzea: Ainhize, Aitor, Amaia, Ana, Ane, Bego, Garbiñe, Iñaki, Ixone, Jasone, Jon, Joserra, Josune, Kepa, Nako, Ortzi eta Txerra. Bereziki eskerrak eman nahi dizkiogu gure Iraleko tutoreari, Gemmari, hasieratik eskaini digun arretagatik eta eman digun animoagatik.

AURKIBIDEA

Lanaren zergatia

Gure jarduerak argi adierazi digunez, trebetasun metafonologikoak landuz, irakurketa eta idazketa errazago eskuratzen dira. Horregatik, garrantzitsua da hitzen egitura fonikoaren analisisan trebatzea, irakurketaren eta idazketaren teknikak ikasi aurretik eta bitartean, batez ere Haur Hezkuntzan (5 urte) eta Lehen Hezkuntzako hasierako mailatan.

Kontzientzia fonologikoa lantzea ezinbestekoa da irakurtzen eta idazten ikasteko prozesuan sortu ohi diren sinplifikazioak gutxiagotzeko: hitzak laburtzea, fonemak ordezkatzeko, fonemak isiltzea, fonemak eraldatzea... Era berean, funtsezkoa da ahozko hizkuntzaren garapenean ere suertatzen diren ahoskatze-arazoei aurre egiteko. Izan ere, ondo ahoskatzeko, ondo irakurtzeko eta zuzen idazteko, umeak fonemak ezagutu behar ditu.

Eskolan hizkera zaindua erabili beharraren garrantziaz ohartzen gara. Baina, hizkera-modu bakoitzak bere ezaugarriak ditu, eta monoestilismoaren arriskua saihestu nahi dugu. Gure lanaren helburuetako bat da gure eskoletako umei hizkera-erregistro anitzak eskaintzea. Horregatik, audioak grabatzean testuinguruko aniztasuna islatzen duten aldagaiak kontuan izan ditugu: generoa, euskalkia, jaioterria eta adina. Soinuak aukeratzean saiatu gara tradizioa eta ahoskera zainduaren gomendioak uztartzen, eta, horregatik, audioetan soinu hauek entzungo dira: <il, ll>, <in, ñ> eta J letraren soinuak, [y] eta [x].

Material honek, alde fonologikoaz gain, hizkuntzaren beste alde batzuk ere lantzen ditu: irudi eta marrazkiak baliatzen ditu hiztegia zabaltzeko (alde semantikoa), esaldiak osatzeko (alde morfosintaktikoa) eta komunikazio-gaitasunak lantzeko (arreta jarri, txandak itxaron, arauak barneratu, erantzunak egokitu...).

Jolasa da gure proposamenaren muina, jolasa baita sasoi honetan haurrak motibatze modurik onena eta umeek duten ikasbiderik berezkoena. Hain zuzen ere, jolas arautua 5 eta 8 urte bitartean garatzen da. Zentzu horretan, hogeitun urte pasatu badira ere, materialak ez du gaurkotasanik galdu.

Materialaren deskribapena eta erabilera

Materialak, "antzara-joko" klasikoan oinarrituta, 22 ibilbide proposatzen ditu. Ibilbide bakoitzak soinu bat lantzen du, eta bertan agertzen diren irudi-hitzek soinu hori daukate. Irteeratik helmugara heltzea izango da helburua.

Jokalariek (edo taldeek) fitxa bana daukate, eta dadoak agintzen duena bete behar dute. Irudi batera heltzean, hitz bat edo esalditxo bat entzungo dute, eta errepikatuko dute. Horretarako irakaslearen gida ezinbestekoa izango da, eredia emateko, umeen parte hartzea bultzatzeko, animatzeko eta motibatuzeko.

ATALAK:

- Smart Notebook 11 programarekin egindako 22 ibilbide fonetiko dira, bi ataletan banaturik. Ibilbide bakoitzak soinu bat lantzen du. Lamina bakoitzean, kolore banako bost fitxa eta dado bat daude.
- Bideotutoriala: bai irakasleei, bai ikasleei zuzendua.
- Eranskinak:
 - lau dado-ereduak
 - soinuen aurkibideen argibide-fitxa
 - ibilbide bakoitzeko argibide-fitxa

Irakaslea, dinamizatzaileria

Irakaslearen jarduera garrantzitsua da jolasa eraginkorra izan dadin. Beraz, irakasleak jolasa dinamizatzeke, hona hemen proposamen batzuk:

- Soinuak lantzeko:
 - Eskaini soinuaren eredu indartua.
 - Lagundu soinuaren artikulatze-eraz jabetzen.
 - Aztertu soinua non dagoen: hitzaren hasieran, erdian edo amaieran.
 - Esan soinu hori daukaten beste hitz batzuk.





- Hitzen egitura silabikoaz jabetzeko:
 - Adierazi silabak txaloen bitartez.
 - Zenbatu hitzen silabak.
 - Silaba bat emanda, sortu hitzak.

- Alde semantikoa lantzeko:
 - Aztertu ibilbideetan elkarri loturik dauden hitzen arteko harremana.
 - Bilatu ibilbideetako irudien artean dauden beste harreman semantiko batzuk.

Jolasak sortzen duen egoera komunikatiboa ezin hobea da hizkuntzaren alde pragmatikoa lantzeko. Arreta mantentzea, txandak eta arauak errespetatzea, parte-hartzea, galdera-erantzunak egitea... funtsezkoak dira komunikazioa egokia izan dadin.

ERANSKINAK

Dadoak



- 1 zenbakia edo puntu bat: *Mugitu irudi bat aurrera.*
- 2 zenbakia edo puntu bi: *Mugitu irudi bi aurrera.*
- 3 zenbakia edo hiru puntu: *Mugitu hiru irudi aurrera.*
- 4 zenbakia edo lau puntu: *Mugitu lau irudi aurrera.*
- Karramarroa: *Mugitu irudi bat atzera.*
- Mamua: *Gelditu irudian, eta itxaron hurrengo txandara arte.*
- Kangurua: *Egin salto helmugaraino.*


AURKIBIDEA


Soinuen aurkibideak


Egin klik eta letra eta jolasaren izenburua entzungo dituzu.


Egin klik eta jolasa zabalduko da.

KLIKA "FONEMEKIN SALTO-SALTOKA": 1. ATALA


Behiaren jolasa: B letraren soinua ··· 


 ··· Idiaren jolasa: D letraren soinua

Fokaren jolasa: F letraren soinua ··· 


 ··· Igelaren jolasa: G letraren soinua

Jirafaren jolasa: J letraren soinuak ··· 


 ··· Katuaren jolasa: K letraren soinua

Balearen jolasa: L letraren soinua ··· 

 ··· Oilarraren jolasa: LL eta IL letra-taldeen soinua

Tximinoaren jolasa: M letraren soinua ··· 

 ··· Zezenaren jolasa: N letraren soinua

Sorginaren jolasa: Ñ letraren eta IN letra-taldearen soinua ··· 

KLIKA "FONEMEKIN SALTO-SALTOKA": 2. ATALA

Hipopotamoaren jolasa: P letraren soinua ··· 

 ··· Lorotxoaren jolasa: R letraren soinua

Txerriaren jolasa: RR letra-taldearen soinua ··· 

 ··· Saguaren jolasa: S letraren soinua

Elefantearen jolasa: T letraren soinua ··· 

 ··· Otsoaren jolasa: TS letra-taldearen soinua

Tximeletaren jolasa: TX letra-taldearen soinua ··· 

 ··· Panda hartzaren jolasa: TZ letra-taldearen soinua

Zikoinaren jolasa: Z letraren soinua ··· 

 ··· Diploren jolasa: L letraren soinua silaba tratatuetan

Tigrearen jolasa: R letraren soinua silaba tratatuetan ··· 


AURKIBIDEA

KLIKA "FONEMEKIN SALTO-SALTOKA"

ba, be, bi, bo, bu

EGIN KLIK

Behiaren jolasa: B letraren soinua




"Mugitu behitik behira, eta klikatu berriro".



"Mugitu baloitik botara". / "Mugitu botatik baloira".



"Mugitu behitik helmugara. Heldu zara!".



Mezu ezkutua: "Behitik behira salto-saltoka helmugara heldu zara, txapeldun!".



Egin klik irudien zenbakietan, eta hitza edo agindua entzungo duzu.

Hitzak: autobusa, behia, kalabaza, habia, baloia, begia, balea, botoiak, bota, botila, liburua, biolina.

AURKIBIDEA

KLIKA "FONEMEKIN SALTO-SALTOKA"

da, de, di, do, du

EGIN KLIK

Idiaren jolasa: D letraren soinua



"Mugitu iditik idira, eta klikatu berriro".



"Mugitu madaritik odolostera". / "Mugitu odolostetik madarira".
"Mugitu dutxatik hodeietara". / "Mugitu hodeietatik dutxara".



"Mugitu iditik helmugara. Heldu zara!".



Mezu ezkutua: "Iditik idira salto-saltoka helmugara heldu zara, txapeldun!".



Egin klik irudien zenbakietan, eta hitza edo agindua entzungo duzu.


Hitzak: sardinak, idia, dadoa, madaria, dutxa, dantzaria, odolostea, errepidea, lodia, diskoa, dirua, zaldia, medikua, dortoka, edan, hodeiak, mendiak.

AURKIBIDEA

fa, fe, fi, fo, fu

EGIN KLIK

Fokaren jolasa: F letraren soinua



"Mugitu fokatik fokara, eta klikatu berriro".



"Mugitu faroletik semaforora". / "Mugitu semaforotik farolera".



"Mugitu fokatik helmugara. Heldu zara!".



Mezu ezkutua: "Fokatik fokara salto-saltoka helmugara heldu zara, txapeldun!".



Egin klik irudien zenbakietan, eta hitza edo agindua entzungo duzu.


Hitzak: fideoa, jirafa, foka, elefantea, farola, telefonoa, semaforoa, kafea, furgoneta, familia, ferra, sofa.

KLIKA "FONEMEKIN SALTO-SALTOKA"

EGIN KLIK

Igelaren jolasa: G letraren soinua

ga, ge, gi, go, gu




"Mugitu igeletik igelera, eta klikatu berriro".



"Mugitu gaztatik sagura". / "Mugitu sagutik gaztara".
"Mugitu gerezietatik sagarrera". / "Mugitu sagarretik gerezieta".



"Mugitu igeletik helmugara. Heldu zara!".



Mezu ezkutua: "Igeletik igelera salto-saltoka helmugara heldu zara, txapeldun!".



Egin klik irudien zenbakietan, eta hitza edo agindua entzungo duzu.

Hitzak: ogia, sukea, igela, gazta, galletak, sagua, eguzkia, begia, gaztelua, gozokia, gezia, gereziak, gerrikoa, gona, gizona, sagarra, garia.


AURKIBIDEA

KLIKA "FONEMEKIN SALTO-SALTOKA"

ja, je, ji, jo, ju

EGIN KLIK

Jirafaren jolasa: J letraren soinuak



"Mugitu jirafatik jirafara, eta klikatu berriro".



"Mugitu bainujantzitik pijamara". / "Mugitu pijamatik bainujantzira".



"Mugitu jirafatik helmugara. Heldu zara!".



Mezu ezkutua: "Jirafatik jirafara salto-saltoka helmugara heldu zara, txapeldun!".



Egin klik irudien zenbakietan, eta hitza edo agindua entzungo duzu.

Hitzak: jantzia, jirafa, jesarlekua, jan, bainujantzia, erlojua, jertsea, jostailuak, pijama, jostorratza, jokalaria, laranja.

AURKIBIDEA

KLIKA "FONEMEKIN SALTO-SALTOKA"

ka, ke, ki, ko, ku

EGIN KLIK

Katuaren jolasa: K letraren soinua



"Mugitu katutik katura, eta klikatu berriro".



"Mugitu euritakotik kapelara". / "Mugitu kapelatik euritakora".
"Mugitu sokatik kometara". / "Mugitu kometatik sokara".



"Mugitu katutik helmugara. Heldu zara!".



Mezu ezkutua: "Katutik katura salto-saltoka helmugara heldu zara, txapeldun!".



Egin klik irudien zenbakietan, eta hitza edo agindua entzungo duzu.

Hitzak: koilara, katua, kopa, foka, euritakoa, gozokia, kalabaza, txokolatea, komuna, eskua, soka, kapela, lapikoa, kometa, kamioia, kea, kaiola.

AURKIBIDEA

KLIKA "FONEMEKIN SALTO-SALTOKA"

la, le, li, lo, lu

EGIN KLIK

Balearen jolasa: L letraren soinua




"Mugitu baleatik baleara, eta klikatu berriro".



"Mugitu tximeletatik lorora". / "Mugitu lorotik tximeletara".
"Mugitu pilotatik palara". / "Mugitu palatik pilotara".



"Mugitu baleatik helmugara. Heldu zara!".



Mezu ezkutua: "Baleatik baleara salto-saltoka helmugara heldu zara, txapeldun!".



Egin klik irudien zenbakietan, eta hitza edo agindua entzungo duzu.

Hitzak: motxila, balea, tximeleta, txapela, leihoa, txirula, elefantea, loroa, telefonoa, limoia, lehoia, txokolatea, pilota, lorea, poloa, pala, luma.

AURKIBIDEA

KLIKA "FONEMEKIN SALTO-SALTOKA"

Ila, Ie, Ili, Ilo, Ilu

EGIN KLIK

Oilarraren jolasa: LL eta IL letra-taldearen soinua



"Mugitu oilarretik oilarrera, eta klikatu berriro".



"Mugitu mailutik makilara". / "Mugitu makilatik mailura".
"Mugitu koilaratik botilara". / "Mugitu botilatik koilarara".



"Mugitu oilarretik helmugara. Heldu zara!".



Mezu ezkutua: "Oilarretik oilarrera salto-saltoka helmugara heldu zara, txapeldun!".



Egin klik irudien zenbakietan, eta hitza edo agindua entzungo duzu.

Hitzak: gailurra, oilarra, oioa, mailua, ispilua, barraskiloa, teilatua, jostailuak, mutila, galletak, bonbilla, makila, koilara, eskailerak, ilargia, botila, pailazoa.

AURKIBIDEA

KLIKA "FONEMEKIN SALTO-SALTOKA"

ma, me, mi, mo, mu

EGIN KLIK

Tximinoaren jolasa: M letraren soinua



"Mugitu tximinotik tximinora, eta klikatu berriro".



"Mugitu motxilatik maletara". / "Mugitu maletatik motxilara".
"Mugitu tomatetik mahatsetara". / "Mugitu mahatsetatik tomatera".



"Mugitu tximinotik helmugara. Heldu zara!".



Mezu ezkutua: "Tximinotik tximinora salto-saltoka helmugara heldu zara, txapeldun!".



Egin klik irudien zenbakietan, eta hitza edo agindua entzungo duzu.

Hitzak: tximeleta, tximinoa, musika-nota, motxila, mahaia, mendia, mutila, amama, luma, mihia, mamua, tomatea, maleta, kamioia, komuna, mahatsak, mailua.

AURKIBIDEA

KLIKA "FONEMEKIN SALTO-SALTOKA"

na, ne, ni, no, nu

EGIN KLIK

Zezenaren jolasa: N letraren soinua



"Mugitu zezenetik zezenera, eta klikatu berririo".




"Mugitu gonatik txanora". / "Mugitu txanotik gonara".

"Mugitu xilofonotik pianora". / "Mugitu pianotik xilofonora".



"Mugitu zezenetik helmugara. Heldu zara!".



Mezu ezkutua: "Zezenetik zezenera salto-saltoka helmugara heldu zara, txapeldun!".



Egin klik irudien zenbakietan, eta hitza edo agindua entzungo duzu.

Hitzak: esnea, elurrezko panpina, zezena, gona, noria, tximinia, dominoa, neska, okaranak, banana, labana, xilofonoa, negar egin, arranoa, txinatarra, pianoa, txanoa.

AURKIBIDEA

KLIKA "FONEMEKIN SALTO-SALTOKA"

ña, ñe, ñi, ño, ñu

EGIN KLIK

Sorginaren jolasa: Ñ letraren eta IN letra-taldearen soinua



"Mugitu sorginetik sorginera, eta klikatu berriro".



"Mugitu giñoletatik panpinara". / "Mugitu panpinatik giñoletara".
"Mugitu bainujantzitik soinekora". / "Mugitu soinekotik bainujantzira".



"Mugitu sorginetik helmugara. Heldu zara!".



Mezu ezkutua: "Sorginetik sorginera salto-saltoka helmugara heldu zara, txapeldun!".



Egin klik irudien zenbakietan, eta hitza edo agindua entzungo duzu.

Hitzak: zartagina, sorgina, gortina, zikoina, ipuina, giñola, bainujantzia, pinua, arraina, bainuontzia, artzaina, hegazkina, soinekoa, oina, panpina, ertzaina, andereñoa.

AURKIBIDEA

KLIKA "FONEMEKIN SALTO-SALTOKA"

pa, pe, pi, po, pu

EGIN KLIK

Hipopotamoaren jolasa: P letraren soinua




"Mugitu hipopotamotik hipopotamora, eta klikatu berriro".



"Mugitu zapatatik pijamara". / "Mugitu pijamatik zapatarara".
"Mugitu pilotatik palara". / "Mugitu palatik pilotara".



"Mugitu hipopotamotik helmugara. Heldu zara!".



Mezu ezkutua: "Hipopotamotik hipopotamora salto-saltoka helmugara heldu zara, txapeldun!".



Egin klik irudien zenbakietan, eta hitza edo agindua entzungo duzu.


Hitzak: tapa, papera, hipopotamoa, pilota, pipa, zapata, lupa, mukizapia, pikua, pianoa, pijama, pirata, kanpaia, pala, panpina, patata, pailazoa.

KLIKA "FONEMEKIN SALTO-SALTOKA"

EGIN KLIK

ra, re, ri, ro, ru

Lorotxoaren jolasa: R letraren soinua




"Mugitu lorotxotik lorotxora, eta klikatu berriro".



"Mugitu loretik garira". / "Mugitu garitik lorera".
"Mugitu euritakotik eurira". / "Mugitu euritik euritakora".



"Mugitu lorotxotik helmugara. Heldu zara!".



Mezu ezkutua: "Lorotxotik lorotxora salto-saltoka helmugara heldu zara, txapeldun!".



Egin klik irudien zenbakietan, eta hitza edo agindua entzungo duzu.

Hitzak: lorea, jirafa, lora, koilara, euritakoa, liburua, eskailerak, semaforoa, farola, euria, txoria, txirula, dirua, gereziak, haria, pirata, garia.


AURKIBIDEA

KLIKA "FONEMEKIN SALTO-SALTOKA"

EGIN KLIK

rra, rre, rri, rro, rru

Txerriaren jolasa: RR letra-taldearen soinua




"Mugitu txerritik txerrira, eta klikatu berriro".



"Mugitu marrubietatik sagarrera". / "Mugitu sagarretik marrubietara".
"Mugitu perretxikotik marigorringora". / "Mugitu marigorringotik perretxikora".



"Mugitu txerritik helmugara. Heldu zara!".



Mezu ezkutua: "Txerritik txerrira salto-saltoka helmugara heldu zara, txapeldun!".



Egin klik irudien zenbakietan, eta hitza edo agindua entzungo duzu.

Hitzak: irratia, erregea, txerria, marrubiak, perretxikoa, orrazia, txakurra, oilarra, sudurra, izarra, motorra, sagarra, karramarroa, olagarroa, arraina, marigorringoa, iturria.


AURKIBIDEA

KLIKA "FONEMEKIN SALTO-SALTOKA"

sa, se, si, so, su

EGIN KLIK

Saguaren jolasa: S letraren soinua




"Mugitu sagutik sagura, eta klikatu berriro".



"Mugitu saguzarretik sugera". / "Mugitu sugetik saguzarrera".



"Mugitu sagutik helmugara. Heldu zara!".



Mezu ezkutua: "Sagutik sagura salto-saltoka helmugara heldu zara, txapeldun!".



Egin klik irudien zenbakietan, eta hitza edo agindua entzungo duzu.


Hitzak: sehaska, usoa, sagua, seilua, besoa, saguzarra, soka, sua, sugea, baserria, sukaldea, sofa.

AURKIBIDEA

Elefantearen jolasa: T letraren soinua

ta, te, ti, to, tu

EGIN KLIK




"Mugitu elefantetik elefantera, eta klikatu berriro".



"Mugitu telefonotik telebistara". / "Mugitu telebistatik telefonora".
"Mugitu pilotatik kometara". / "Mugitu kometatik pilotara".



"Mugitu elefantetik helmugara. Heldu zara!"



Mezu ezkutua: "Elefantetik elefantera salto-saltoka helmugara heldu zara, txapeldun!"



Egin klik irudien zenbakietan, eta hitza edo agindua entzungo duzu.


Hitzak: tomateak, botoia, elefantea, autobusa, pilota, telefonoa, zapata, galletak, katua, patatak, ahatea, telebista, atea, txupetea, kometa, tximeleta, tutua.

KLIKA "FONEMEKIN SALTO-SALTOKA"

tsa, tse, tsi, tso, tsu

EGIN KLIK

Otsoaren jolasa: TS letra-taldearen soinua



"Mugitu otsotik otsora, eta klikatu berriro".



"Mugitu itsaspekotik itsasontzira". / "Mugitu itsasontzitik itsaspekora".



"Mugitu otsotik helmugara. Heldu zara!".



Mezu ezkutua: "Otsotik otsora salto-saltoka helmugara heldu zara, txapeldun!".



Egin klik irudien zenbakietan, eta hitza edo agindua entzungo duzu.

Hitzak: itsulapikoa, otsoa, itsas izarra, itsasoa, itsas zaldia, hautsontzia, mahatsak, igeltsua, itsaspektoa, jertsea, mortsa, itsasontzia.


AURKIBIDEA

KLIKA "FONEMEKIN SALTO-SALTOKA"

EGIN KLIK

txa, txe, txi, txo, txu

Tximeletaren jolasa: TX letra-taldearen soinua



○ "Mugitu tximeletatik tximeletara, eta klikatu berriro".

○ "Mugitu txitatik txorira". / "Mugitu txoritik txitara".

○ "Mugitu tximeletatik helmugara. Heldu zara!".

Mezu ezkutua: "Tximeletatik tximeletara salto-saltoka helmugara heldu zara, txapeldun!".

○ Egin klik irudien zenbakietan, eta hitza edo agindua entzungo duzu.

Hitzak: txita, tximeleta, txalupa, txapela, txinatarra, tximinia, ipotxa, tximinoa, untxia, tximista, txoria, txupetea.


AURKIBIDEA

KLIKA "FONEMEKIN SALTO-SALTOKA"

EGIN KLIK

tza, tze, tzi, tzo, tzu

Panda hartzaren jolasa: TZ letra-taldearen soinua



"Mugitu panda hartzetik panda hartzera, eta klikatu berriro".



"Mugitu pintzeletik arkatzera". / "Mugitu arkatzetik pintzeler".



"Mugitu panda hartzetik helmugara. Heldu zara!".



Mezu ezkutua: "Panda hartzetik panda hartzera salto-saltoka helmugara heldu zara, txapeldun!".



Egin klik irudien zenbakietan, eta hitza edo agindua entzungo duzu.

Hitzak: bihotza, panda hartza, pintzela, putzua, jostorratza, galtzerdiak, arkatza, gurutzea, berakatza, atzazala, giltza, galtzontzilloa.

KLIKA "FONEMEKIN SALTO-SALTOKA"

za, ze, zi, zo, zu

EGIN KLIK

Zikoinaren jolasa: Z letraren soinua



"Mugitu zikoinatik zikoinara, eta klikatu berriro".



"Mugitu kalabazatik azara". / "Mugitu azatik kalabazara".



"Mugitu zikoinatik helmugara. Heldu zara!".



Mezu ezkutua: "Zikoinatik zikoinara salto-saltoka helmugara heldu zara, txapeldun!".



Egin klik irudien zenbakietan, eta hitza edo agindua entzungo duzu.


Hitzak: zuhaitza, zikoina, zezena, kalabaza, zopa, zapia, gezia, zubia, zukua, zapata, zapaburua, aza.

AURKIBIDEA

EGIN KLIK

pla, kle, bli, flo, blu...

Diploren jolasa: L letraren soinua silaba trabatuetan




"Mugitu Diplotik Diplora, eta klikatu berriro".



"Mugitu klarinetetik flautara". / "Mugitu flautatik klarinetera".
"Mugitu klarionetik plastilara". / "Mugitu plastilatik klarionera".



"Mugitu Diplotik helmugara. Heldu zara!".



Mezu ezkutua: "Diplotik Diplora salto-saltoka helmugara heldu zara, txapeldun!".



Egin klik irudien zenbakietan, eta hitza edo agindua entzungo duzu.

Hitzak: platanoa, flana, Diplo, klariona, iglua, platera, bizikleta, sablea, plantxa, klarineta, globoa, txankleta, flauta, plastilina, flotagailua, flemoia, klipak.

gra, kre, tri, dro, bru...

EGIN KLIK

KLIKA "FONEMEKIN SALTO-SALTOKA"

Tigrearen jolasa: R letraren soinua silaba trabatuetan



"Mugitu tigretik tigrera, eta klikatu berriro".



"Mugitu frutatik krocketara". / "Mugitu krocketatik frutara".
"Mugitu traktoretik trenera". / "Mugitu trenetik traktorera".



"Mugitu tigretik helmugara. Heldu zara!".



Mezu ezkutua: "Tigretik tigrera salto-saltoka helmugara heldu zara, txapeldun!".



Egin klik irudien zenbakietan, eta hitza edo agindua entzungo duzu.

Hitzak: brotxa, tigrea, krabelina, tripa, dragoia, printzesa, matrikula, fruta, grapagailua, tronpeta, triste, preso, kroketa, traktorea, kromoak, trena, prakak.

Bibliografia

ALBERDI, Andres: *Ahoskera*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 2014.

EUSKO JAURLARITZA: *Heziberri 2020: hezkuntza-eredu pedagogikoaren markoa* [linean], Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 2014.

Berreskuratua: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/inn_heziberri_marco/eu_def/adjuntos/Heziberri_marco_modelo_educativo_pedagogico_e.pdf

EUSKALTZAINDIA: *Euskara batuaren ahoskera zaindua* (87. araua), Donostia, 1998.